ZIUR FUNDAZIOAREN TENABLE-EKO ZAURGARRITASUNAK AURKITZEKO PLATAFORMA EGUNERATU ETA MANTENTZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA (ZIUR2022016 ESPE.)

1. AURREKARIAK

Gaur egun, ZIUR Fundazioaren egoitzak Tenable fabrikatzailearen lizentzia bat du, Fundazioaren Industria Zibersegurtasun arloko Laborategiko ekipamenduan. Fundazioak enpresa industrial gipuzkoarren ekipamenduetako sistema eta osagaien zibersegurtasuna ebaluatzeko hainbat prozesutan erabiltzen du irtenbide hori. Hala, aztertutako sistema eskaneatu, eta bere zaurgarritasunak identifikatzen dira, eta, ondoren, enpresei zaurgarritasun horien aurrean babesten laguntzen zaie.

Fisikoki, Fundazioak fabrikatzailearen lizentzia bat du laborategiko ekipo batean, 2020ko abenduan erosia. Zerbitzu hori aurrera eraman ahal izateko enpresek dituzten sare-arkitekturak eta egungo lizentziaren mugak kontuan izanik, beharrezkoa da lizentzia hori eguneratzea, eskaneatzeko lana “in situ”, aztertutako enpresaren instalazioetatik, egin ahal izateko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

ZIUR Fundazioaren Tenable-eko zaurgarritasunak aurkitzeko plataforma eguneratu eta mantentzeko kontratua arautuko duten baldintzak zehaztea da Preskripzio Tekniko Partikularren Agiri honen xedea.

3. KONTRATUKO PRESTAZIOEN DESKRIBAPENA

3.1. Hornitu beharreko ekipamendu informatikoa

Hornikuntza egin ahal izateko, honako irismen hau izango du lizentziaren eguneraketak:

Ekipamenduaren deskribapena	Unitateak	Lizentziaren iraupena (urteak)
Tenable lizentzia.sc	1	3

Lizentzia instalatzeko zerbitzuak eta ZIUR Fundazioko teknikariek lizentzia erabiltzen ikasteko 4 orduko prestakuntza ere jaso beharko da.

3.2. Mantentze-zerbitzuak

Fabrikatzaileak eskainitakoaz gain eskaintzen den mantentze-zerbitzu integralak 3 urteko iraupena izango du. Zerbitzu horren bidez, 8x5xNBDko arreta-zerbitzua eskaini beharko da, eta 1 eta 24 ordu arteko erantzun-denbora, gehienez, hornitutako produktuekin izandako intzidentzia jakinarazten denetik kontatzen hasita, beti ere, intzidentziaren larritasuna kontuan izanda.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak telefonoak, helbide elektronikoak, intzidentziak kudeatzeko aplikazioa edo zerbitzu hori betetzeko bitartekoak eman behar dizkio ZIUR Fundazioari.

Laguntza-zerbitzuak erantzun-denbora egokiak bermatu behar ditu teknikariek *in situ* jardun behar dutenerako. Zehazki, muga hauek ezartzen dira:

- ZIUR Fundazioari fabrikatzaileak iragarri eta gomendatutako bertsio berriak eta segurtasun-adabakiak jakinaraztea, bi aldeek bertsio berrien suebakien eguneraketak planifikatu ahal izateko eta beharrezkoak diren segurtasun-adabakiak aplikatu ahal izateko.
- ZIUR Fundazioaren esku jakinarazpen eta intzidentzien prozedura bat jartzea (telefono bidezkoa eta posta elektroniko bidezkoa).
- Zerbitzu horren barruan dago teknikari espezialistak intzidentzia konpontzeko *on site* emandako laguntza (ekipoak ordezkatzea ere bai), zehaztutako estalduraren eta *Service Level Agreement* (*SLA*) hitzarmenaren arabera.
- 8x5xNBD prestasun ordutegia larritasun maila guztietarako.

Erantzuteko denbora, gehienez:

- 1. mailako larritasuna <= 1 ordu
- 2. mailako larritasuna <= 4 ordu
- 3. mailako larritasuna <= 16 ordu
- 4. mailako larritasuna <= 24 ordu

Larritasunaren definizioak

- 1. mailako larritasuna – Zerbitzua erorarazi duen intzidentzia larria – Produktua erortzeko edo eteteko arriskuan dago.
- 2. mailako larritasuna – zerbitzua arriskuan jartzen duen larritasun ertaineko intzidentzia – Intzidentziak arrisku operazionalak eragingo ditu berehala.
- 3. mailako larritasuna – errendimendu baxua eragiten duen intzidentzia baxua – Intzidentziak ez die eragiten inolako arazo operazionalik erabiltzaileei.

- 4. mailako larritasuna – Kontsulta mailako intzidentzia – Kritikoak ez diren edo intzidentziak konfiguratzeko edo konpontzeko kontsultak.

Ulertzen da mantentze-zerbitzuaren barruan daudela kontratua indarrean dagoen bitartean izandako edozein gorabehera edo zaurgarritasun konpontzeko ekipoetan egin beharreko aldaketak.

Halaber, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du fabrikatzailearen softwarea eguneratzeko, ekipoak erabat eguneratuta egon daitezen eta ezin hobe funtziona dezaten.

3.3. Ekipo informatikoen kokapena

Tenable lizentzia instalatuta dagoen ekipoa ZIUR Fundazioaren laborategi industrialean dago kokatuta. Beraz, leku horretan egin beharko da instalazioa.

ZIUR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA

72724351F KOLDOBIKA PECIÑA (R: G75203067)
Digitalki sinatuta norengandik: 72724351F KOLDOBIKA PECIÑA (R: G75203067)
Data: 2022.06.03 09:51:37 +02'00'

Koldo Peciña Txintxurreta